

"Unamuno'ren espiritualidadea: fedearen krisis bat"

Zeruko Argia, 355. zk., 1969-12-21: 15.

Izlaria: Enekoiz'tar Rikardo kaputxinoa (Lekaroz'ko erretore jauna)

Itzaldi au azaroaren 26'an eta pasiotarren ("Oargi-alaiki") aretoan egin zan. Askotan gerta oi dan bezela, itzaldiak merezi baño batzaldi txikiagoa lortu zuan; berrogei-bat entzulekoa; gai au buru duala 70.000 fitxaren giarra billatu, ta arkitu, duan gizonak geiago merezi zuan noski.

Aita Rikardo berrogei urte inguruko praille gazte bat da; sikolojian ikasketa aundiak egin eta gero, bere tesis bezela-edo. Unamuno'ren espiritualidadearen gaia aukeratu zan; Sikolojia, Filosofiaren zati bat da, ta ikasbide askokin gertatzen dan bezela, zatia bera ere beste zati berrietan adarkatzen asia; adar oietatikan bat, noski, erlijiozko sikolojia da.

Jakintza onen argitan jarri zigun Aita Rikardo'k gure betiko Unamuno.

Apaiz izateko Jaungoikoaren deia izandu zualakoan egon omen zan Unamuno zalantza bezian beti. Dei onek markatu zuan gizona, nunbait. Ez, bear ba da, Jaungoikoak egitazko deia egin eta Migel'ek ez-aditua egin ziolako; baizik, jaungoikoak egitaz deitu gabea izan arren, berak (eta gaxo-beraz noski) deitu ziola ta joan ez zitziola uste minbera izan zuelako. Ala zion izlariak, alegia Unamuno'ren uste ori oso aulki sustraitua zegoala; bein Biblia alabearrean iriki, itxu-itxuan beatza orri gañean jarri ta bertan esaten zionak: "zoaz, eta mundu zear nere argia zabal zazu" edo orrelako zerbait beretzat idatzia balitz bezela artu zuan don Migel'ek; beste bein, burua asmo orretan zeukala kanpai otsa entzun zuan, eta Jaungoikoaren deia zalaren ustea oraindik gogorrago baitu zitzaion.

Gertakera oiek, sinismenak baño siniskeriak eragiñagoak dirudite.

Peman idazleak ba du gai onetaz lan bat, eta izan-buru bertatik adierazi nai duan bezela ("Unamuno, graziari uko egindakoa") Jaungoikoaren deiari baietzkorik eman ez zion gizona bezela jotzen du, ta ortik ateratzen duan ondorena auxe da: ezin-egon onetatik zetorkiola bere fede-krisis aundia, ta bere estualdi edo larritasun eta berak ainbeste ta ain mindu (ta negarti ere bai) aitatzen zuan *angustia* ura. Bañan izlariak zionez, adi-eraste orrek ez omen du egiazkoa danik eaten; alegia, bere ustez Unamuno'k ez omen zuan egitazko goi-deirik iñoiz izan, eta *berak dei zirala uste zituan egokierak eta usteak ez omen ziran bere emotibidadearen geiagokoak besterik*.

Eta aulkeri au txikitandik zekarkian zerbait izan.

Unamuno 1864'ean jaio zan. Amasei urte zituala (1880'ean) unibersidade bateko ezieraren kezkak beartuta Madri'era joan bear izandu zuan. Erri-aldaketa onek mutikoa gogor astindu zuan. Berak bere idaz-lanetan esaten duan bezela, bere erritik atera zanetik berriz Bilbo'ratu ta ezkondu arteko tarte onetan (ama palta, andregaiia palta, Bilbo palta) asko sufritu omen zuan; berak zionez, bere biziaren zati onetaz gogoratzerik ere ez zuan nai.

Fedea ere orduan galdu zuan.

Nun, eta an, Madrid'en, nabaitu zuan Unamuno'k bere erriaganako maitasun aundi bat; euskera ikasten asi zan, eta amasei urte gorriko ume ura Euskalerriko ixtoria amasei (!) liburu aundietan idazteko asmoa artu zuan; ainbestekoa zan bere erri-miña, euskera entzutearren bakarrik joaten zan astero neskame euskeldun batzuek biltzen ziran toki batera. Eta bide batez garai onetan bertan izan zuan dalako fede-krisis ori. Unamuno'k dionez, Eliza'ren dogmak arrazoizko erremintekin sakondu nai izan zituan eta dogmak azal uts arkitu zituen. Aita Rikardo'k dionez, erlijiozko sikolojiaren argiarekin ikusita gizonak bi eretan galdu omen lezake fedea: 1) buru-lanetako zalantzetan, eta au geien 30-35 urteko tartean eokitzen dana omen da; ta 2) minberatasunak, emotibidadea, eraginda.

Ta auxe izan gaztetandik Unamuno'k nabarmenki erakusten duan aulkeria.

Bilbo'ra itzuli, ezkondu ta bertan bizi zanean elizaratu omen zan berriz; bañan 1887'an berak idazten zituan eta berari idazten zizkieten eskutitzen bidez jakin degun bezela, aldi-une onetantxe asi zan berriz sinismen gabearen otz ori sentitzen. Garai artan jakin arazten ziran nor-geiagoka guzietara agertzen omen zan: Etika zala, Latiña zala, Metafisika erakusteko zala, ta danak galdu zituan. Metafisika'ko irakasle egiteko egin zan leiaketan 14 irakasle-gai azaldu ziran, eta Unamuno amalaugarren geratu; bere aztertu zuenetako batek esan zuana: Metafisika'ko maixu aundi guziak eta bere pentsa-bideak ere ondo ezagutzen zituala Unamuno'k, bañan maixu aundi oiek berak ziotenaren aurka zegoala esan omen zietela maiekoiei, ta ia ba nola berak onartzen ez dituan ikasteak irakasteko gai izango zan!; euskerarekin ere berdin gertatu zitzaion: Madrid'en unibersidaderako idatzi zuan tesis osoan euskera sustrai beretatik eriotzak jota zegoala esan zuan, eta nola jarriko zuten ba orrelako usteak zeuzkan gizonaren eskuetan euskeraren indarrek bizkortzeko Bilbo'n antolatzen ari ziran erakundea!

Garai artan, 1894'ean, sozialista ere egin zan.

Aurretik, 1891'garrenean, Salamanca'ko katedra bat irabazi zuan (grezitarren izkuntza ta elertia erakusteko); Bilbo'n ba zan atera-berriko *Lucha de clases* izeneko izparringi bat, eta bertan asi zan idazten; gogorkeri asko esan omen zituan bertan, bere amaren baitako beintzat, eta semeari idatzi zion eskutitz mingarri baten zati bat irakurri zigun izlariak: "itxututa zaude, seme", zion, "arrokeri batek jo zaitu"; "nola-nai aipatua izateko zure egarri oiek jende oiengana bultsa zaituzte"; amaren naiko baten bustiak zabaldutako tinta ere ikusten omen da oraindik eskutitzean; bere alabak erakutsita ikusi ditu aita Rikardo'k eskutitz oiek; garai arretan idatzi omen zuan Unamuno'k: "Los tribunales militares" izen-buru zuan idaz-lan bat; izenpetu gabe, noski; ta lan au zala merio izparringiaren zuzendaria ezpetxeratu zuten; ta Unamuno'k ez zuan arpegirik nunbait. Orretan geratu zan bere alderditasun ori. Emen ere bere emotibidadearen purrustada bat ageri da bereziki.

Egi-egitaz lagundu ziona, bere emaztea izandu zan.

Bere alabak dionez, etxean ama omen zan buru. Jaun-artze ezkeroko laguna ta gaita gabeko bere ume-andregai izan zan berarekin ezkondu zan. Bein batean don Migel oso gaixo, iltzen, sentitu omen zan. Ba omen da nerbioetako gaixotasun bat, batek bere soiña sentitzez utzi ta osorik joango ba litzake bezelakoaren sentipen bat nabai arazten duan gaitz bat, eta orrexek jo zuan Unamuno. Betiko bere Jaungoiko ikarak izutu, bai, ta

prailletxera sartu zan; an egon zan iru egun iñor ikusi nai ezik; beti bezela, bere andreak lagundu zion berera etortzen. Berarengatik izan ez ba zan, bere burua ilko omen zuan; eskutitz batean bere emazteari aitortua auxe.

Aita Enekoiz'en ustean, Unamuno naimenez (boluntadez) aula omen zan.

Itzaldia bukatu zanean batek galdetu zion, ia, ba, nola bere liburuetan ain indartsu agertzen zan gizona orrelako aulkeri batek joa izan litekean? Eta erantzuna eman zion; batzuek aulkeri ori sentitzen dutenean (beste batzuek txikitasunarena izaten duten bezela) aunditasunaren konplejoa sortu arazten duen indarra omen da, bere aulkeria eztaltzeko indarra, gezurrezkoa nunbait. Onek ez du, noski, Unamuno'ren gizatasuna ta bere burulanaren balioa iñoiz jetxiko, bañan berez aundi zituen gaitasunekin batera bere aulkeriak ere ba zituala erakusten digu; gañentzeko gizonok bezala.

Azkenik: Unamuno'k sinisten al zuan, ala ez?

Kaputxino ospatsu onek dionez: Jaungoiko batean sinisten zuan Unamuno'k, noski, bañan katolikoenean ez; protestanteenean ere ez, ez baizituan protestanteen asmoak ere onartzen. Kristau zan, ta beti berekin lepotik zintzilika zeramakian gurutzea sendagilleak kentzera beartu zuanean (ekzema bat sala-ta) poltxikoan erematen zuan; eta alaxe, poltxikuan zeukan eskua gurutzeari elduta zeukala il zan.